

ELKARTEAK:


Hasteko, gure **bazkideetako** bakoitzak izango duen **jarduera** zehaztuko dugu, kontutan arduratuko da, hau da, jostailuak egokitasunaz produzitzen diren ziurtatuko du.

- Leire: Aplikazioak 7u1egunean mantendu eta jostailuak sortzen bideoak sortu eta igotzeaz arduratuko da.
- Naiara: Hitzaldiak emateaz eta produktua promozionatzeaz arduratuko da.
- Oihane: Gurekin lan egingo duten elkarteekin harremana mantendu eta diruaren kudeaketaz arduratuko da.

Materiala lortzeko hainbat baliabide desberdin izango ditugu. Hasteko, **negozio txikietatik**, hau da, herrietako denda txikietatik eta **udaletxeekin** kontenedoreak emateko **Cáritas** eta **EMAUS** ikertu eta proiektuan sartuko dugu. Bestalde, **indibiduoetatik** materialak eskuratuko ditugu, eta hauek ematen dizkiguten edozein material onartuko ditugu, hala nola, **egurra, plastikoa, kartoia** edota **oihala**. Hortaz, **multinazionalekin** elkar lanean arituko gara, hauei, “Gizarte ardura korporatiboa” irudia emanez.

Materialak lortzeko enpresa anitzak erabiliko ditugu. Egurra lortzeko, Asteasuko egur industria erabiliko dugu, “*2017 urtean miloi bat tona egur hondakin bota ziren*”. Oihalaria dagokionez, Sedatex enpresa erabiliko dugu, “*ehun milioi tona hondakin baino gehiago sortzen dira urtero Espainian, pertsonako 20-30 kilo inguru*”.

Plastikoa lortzeko, koka-kola enpresarekin harremanetan jarri gara, “*Espainiak 1,6 milioi tona hondakin inguru sortzen ditu urtero plastikozko ontziekin*”. Azkenik, kartoia lortzeko, Villabonako paper-fabrika erabiliko dugu, izan ere, “*Espainiako industria-sektoreak 850.000 tona kartoi-hondakin baino gehiago sortu zituen 2010ean*”.



Bestalde, **jostailuak saltzeko** aliantzak izango ditugu, beraien bidez gure produktuak saldu ahal izateko. Guk ez dugunez denda fisikorik izango, jada dauden dendetan salduko ditugu gure jostailuak, hala nola, **komertzio txikietan** (herriko denda txikiak), **multinazionalak** (enpresa handietako dendak), **ospitaleak** (bertako hurrek erabili ahal izateko) eta baita **haur eskoletan** ere.

Jarraituz, gure **produktuak bidaltzeko** momentuan, **garraio enpresa** izango dugu **azpikontratatua**, eta hauek bi eginkizun izango dituzte. Alde batetik, lehengaiak jaso egingo dituzte, eta ondoren jasotako produktua eraman beharreko lekura garraiatuko ditu.

Azkenik, gure enpresari **ikusgarritasuna** emateko, modu ezberdinetan egingo dugu. Alde batetik, Gipuzkoako udaletxe guztiei Flyer baten bidez gure enpresari buruzko informazioa emango diegu. Bestalde, **sare sozialak** erabiliko ditugu, pertsona ezberdinekin kolaborazioa bilatzeko, hala nola, Facebook (adibidez “Todos somos reciclaje”), Instagram (“Aqui la tierra” edo “Muy Interesante”) eta baita TikTok ere (adibidez “Verdelis” bezalako influenserrak). Pertsona hauek beren kontua erabiliz, pertsona askori ezagutarazi diezaioke gure enpresari buruz.